

Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko ekainak 8

Udal
hauteskun-
deetako
emaitzak

Bukavu
proiektua

Pelota
txapelketa



Ikasteko ez dago
adinik

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

1995.eko UDA-IKASTAROA

Mailak:	Euskalduntze, Alfabetatze eta EGA
Matrikula epea:	Ekainaren 5etik 21era
Ikastaroaren hasiera:	Ekainaren 26a
Ikastaroaren bukaera:	Uztailaren 21a
Matrikula kostua:	6.500 pzta.
Bulego ordutegia:	Goizez: 9etatik 12,30etara Arratsaldez: 3etatik 7etara
Helbidea:	Durana 11 (Aretxabaleta) Fernando Enparantza (Eskoriatza)
Telefono zenbakia:	79 21 68

*Gure eskerrik beroenak orain arte
Aretxagazetako lehiaketan lagundu
diguten BURGALDES, IBARRA eta
MENDIOLA jatetxeei.*

*ESKERRIK ASKO zuen
laguntzagatik!!!*

Ze iruditzen zaizkizu helduen heziketarako kurtsoak?

Vene Corral
(Etxekoandrea)

Oso ondo iruditzen zait. Gaurregun ez litza-teke analfabetorik egon behar. Jende asko ez da joaten lotsatu egiten delako.



Carmen Tejedor
(Etxekoandrea)

Ikasteko zerbait den bitartean gauza ona da. Irakurtzen eta idazten ez dakiten pertsoneri klase-tara joateko animatzeko esango nieke.



Isidoro Garciaetxabe
(Langilea)

Horrelako kurtsoak beti ondo egoten dira. Oinarrizkoak diren gauzak jakiteko beharrezko ezagupenak ematen di-rela uste dut.



Alvaro Perez
(Langilea)

Ondo dago horrelako ikastaroak antolatzea. Graduatua atera edo eta alfabetatu gura duen jendeari aukera gehiago eman behar zaio.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

Dantza zaleoi

Atxabaltako gazteoi,

Badira urte batzuk Loramendiko nagusien dantza taldea sortu zena. Orduetik hainbat dantza ikasi eta hainbat tokitan dantzatu dugu.

Orain ere dantza berriak ikasteko eta dantzatzeko ilusioz gaude, baina dantza berriak ikasteko orduan neska eta mutil faltan gaudela konturatu gara batez ere mutilen hutsunea nabaria da.

Horregatik zuengana zuzentzen gara, 17 urtetik gorako gazteona. Norbaitek euskal dantza berriak ikasi gura baditu Loramendi dantza taldera zuzendu dadila (Kuartel zaharra) eta bertan izen ematea besterik ez da izango.

Loramendi Dantza Taldea

Martín

RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan

Mitarte, 16

Tfnoa: 79 01 72


LUDI-BERRI

Musika Taldea

- Ezteiak
- Bataioak
- Banketeak
- Jaialdiak

Tfnoak: 77 00 95 / 77 11 63

Hauteskundeetako emaitzak aztertuz



Hauteskunde eguna pasatu zenetik, egun batzuk igaro diren arren, ongi dago emaitzei buruzko erreflexio bat egitea. Egia esan, batek baino gehiagok sorpresarik jasoko zuen Udal hauteskundeetako emaitzak jakin ondoren.

Aurtengo Udal hauteskundeen emaitzak aztertuz, esan daiteke lagun kopuru handia hurbildu zela mahaietara botua ematera. Abszentsio maila % 27koa izan da.

Alderdez alderdi, aztertzen hasi ezker, botu gehien jaso dituen alderdia **HB** izan da, guztira 998 boturekin. 1991ko datuekin konpa-

ratuz 112 botu gehiago lortu ditu.

Bigarrena, **EAJ** gelditu da, 906 boturekin. 1991. urtean baino 108 botu gehiago lortuz.

Hirugarren, 687 boturekin **EA** gelditu da. Aurreko Udal hauteskundeetan alderdi botatuena izatetik hirugarren postura pasatu da. 219 botu galdu ditu.

Laugarren **PSE-EE** dago, 583 botu lortu ditu. 1991. urtean baino 66 botu gehiago.

Azkenik, Atxabaltan Udal hauteskundeetarako lehen aldiz aurkeztu den alderdiak, **IU**, 180 botu lortu ditu.

Alderdi bakoitzak lortutako botu kopuruekin 13 zinegotziak honela banatuta gelditu dira: **HB**k lau zinegotzi lortu ditu, aurreko Udal hauteskundeetan bezala. **EAJ**ak beste lau, lehengoan baino zinegotzi bat gehiago. **EA**k hiru zinegotzi, bat galduz. **PSE-EE**k bi zinegotzi, 1991. urtean beste. Eta azkenik **IU**k ez du zinegotzirik lortu.

Emaitza guztiak jakin ondoren garrantzitsuena falta da jakiteko, alkate barria nor izango den. Honetarako datorren hilaren 17ra arte itxoin beharko da.

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

TXIMAK

Ileapaindegi mistoa

Herriko Plaza, 5- Behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABALETA

MATIKUA

Taberna

Aozaratza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Erreñabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

Unai proiektuaz bukatu eta Bukavu proiektuaz hasi

- Proiektu batekin bukatzeko eta barriaz hasteko jaialdi bikaina antolatu du Hirugarren Mundu Taldeak
- Proiektu barria Afrikan izango da

“Zuzen” Hirugarren Munduaren aldeko Elkarateak bukatu du Unaiko garapen proiektuaz. Honetarako hiru urte eta zortzi hilabete behar izan dituzte. Hasiera batetan pentsatutako epea lau urtetakoa zen.

Unai proiektuan guztira lortutako finantzaketa 18.500.000 pezetetakoa izan da. Kopuru hau ondorengo iturrietatik lortu dute:

Aretxabaletako herritarrak	8.150.000
Aretxabaletako Udala	5.500.000
Arrasateko herritarrak	1.900.000
Arrasateko Udala	2.050.000
Hainbat erakunde	900.000

Unai proiektuaz Asian lortu dena aldiz ondorengoa da:

- 20.000 pertsona inguruko populazioaren alimentazio arazoa konpontzea.
 - 600 ume aureskolan ikasten hastea.
 - Lau urtetan 300 personari lana ematea.
- Proiektu batekin bukatu badute ere, dagoeneko beste proiektu bat ere landu dute. Oraingo hau Afrikan izango da eta Damaso Zuazua (Egileor) atxabatarraren eskutik datorren proiektua da. Damasok ondo ezagutzen ditu hango

lurrak, bertan lan asko egindakoa da eta.

Proiektu barria Bukavu deituko da. Bukavu Zaireko hiriburua bat da eta Ruan-dako errefuxiatuak han bizi dira. Proiektua eskola baten eraikitzean datza. Gurasoak galdu dituzten ume pilo bat dago bertan eta beraien egoera psikologikoa ez da batere ona.

Bukavu proiekturako ipinitako epea 18 hilabetekoa da eta 10.000.000 pezeta lortu gura dira. Diru kantitate hau lortzeko behar beharrezkoa da guztion laguntza.

Jaialdi bikaina

Unai proiektuari bukaera eman guran eta Bukavu Zairen hasiko duten proiektu berriari hasiera emateko jaialdi bikaina antolatu du “Zuzen” Hirugarren Munduaren aldeko Elkarateak. Jaialdi honen bitartez Aretxabaletako herriak horrelako ekintzetarako erakutsi duen



Unai proiektua bukatuta dago

arreta eta sentsibilitatea eskertu gura dira.

Ekainaren 10ean, ondorengo ekin-tzak izango dira Iturrigorri frontoian, gaueko 10etan hasita:

Bertsolariak:

Imanol Lazkano
Iñaki Murua
Xabier Euskitze
Jon Sarasua

Bertsolariez gain, **Laja trikitilariak** giroa alaituko du eta **Bergarako dantzariak** dantza suelta dantzatuko dute.

JANTZI DENDA

ASENSIO

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABALETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

Berrikuntzak



MODAN
DAGOEN
GUZTIA

Iparragirre, 4 Tfnoa.79 21 24

FOTO

UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28



Urkuluko urtegiaren piraguismo ikastaroa izango da aurten ere

Udarako kirol ekintzak

Urtero bezala, aurten ere Atxabaltako Udal Kultura Batzaordeak Udarako hainbat kirol ekintza antolatu ditu. Antolatutako ikastaroen artean, piraguismoa, eskalada, igeriketa, espeleologia, tenisa eta badmintona daude.

Ekintza guztiak uztailaren izango dira bi txandetan zehar. Lehenengo txanda uztailaren 3tik 16ra bitartekoa izango da eta bigarrena berriz uztailaren 17tik 23ra bitartekoa.

Apuntatzeko epea ekainaren 12tik 23ra artekoa da eta honetarako Kultur Etxera jo beharko da. Norbaitek informazio gehiago gura izango balu Kultur Etxera jo edo eta 79 01 05 telefonora deitu.

Andramaixetarako kartel lehiaketa

Aurten ere beste urte batzutan moduan heldu da herriko jaietarako kartela aukeratzeko ordua. Hori dela eta Kultura Batzordeak dagoeneko antolatu du kartel lehiaketa eta ondorengo arauak jarri ditu oinarritzat:

- 1.- Atxabaltako edozein lagunek parte har dezake.
- 2.- Teknika librea izango da.
- 3.- Kartelen neurriak 50x70 zm.takoak izan behar dute.
- 4.- Karteletan derrigorrez ondorengo testua agertu beharko da.

ANDRA MARI JAIK 95/ABUZIUA 14, 15, 16 ETA 17 ARETXABALETA

- 5.- Sariak honoko hauek izango dira:
 - 1go Saria: 25.000 pzta eta plaka bat.
 2. Saria: 10.000 pzta.
 - 3.- Saria: 5.000 pzta.
- 6.- Egoki eritzi ezkerro, aurkeztutako kartel guztiakin erakusketa bat egingo da.
- 7.- Kartelean ez da egilearen izena agertu beharko, hau sobre itxi batetan aurkeztu beharko da.
- 8.- Kartelak, **ekainaren 22a** baino lehen, **Aretxabaletako kultur etxera** bidali beharko dira.
- 9.- Epaimahaia Kultura Batzordearekin batera herriko beste hainbat pertsonak osatuko dute.
- 10.- Erabakia ekainaren 29an emango da jakitera.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

Durana kalea konpontzeko obrak hasi dira

Maiatzaren 29an hasi ziren Durana kalea konpontzeko obrak. Bi hilabetez luzatuko dira eta bitartean kalea itxita egongo da trafikoarendako, oinezkoendako ez.

Kalea konpontzeko obrak, Construlan S.A.k egingo ditu. Dagoeneko ekin diote pabimentua moztu eta altxatzeari. Lan honekin bukatu ondoren adokin berria jarriko da. Adokinak lehengoaren itxura berdina izango du baina aurrekoak baino kapazitate gehiago. Lehengoak 2,8 zmtako sendoera bazuen, berriak 6,8 zmtako sendoera izango du.

Espaloia eta harrizko mugarrietatik bazterrera dagoen zatia ez da ikutuko, lehen bezala geldituko da. Behin adokina jartzen bukatu ondoren, kaleak lehengo itxura berdina izango du.

Obraren aurrekontua 13.219.432 pezetetakoa da. Ea ba, Andramaixetarako Durana kalea txukun txukun egoten den.



Hasi dira Durana kalean lurzorua berrizteko obrak

Almeneko Infantil mailako futbol taldeak, maiatzaren 27an Irungo Anaka I.P.ren kontra partidu polita jokatu eta gero, Gipuzkoako Kopako txapelketan bigarren postua lortu zuen.

Lerro hauetatik taldeko mutikoen, entrenatzailea den **Jesus Arregi** eta guraso guztiak zoriontzea nahi du Almen Kirol Elkarteak ondorengo mezua bidaliz: "Lortu duten garaipena azkena ez dadila izan eta lanean jarraitzeko animatzen ditugu garaipen gehiago lortu eta Deba Bailara kirol arloan maila altuan utzi dezaten".

Alberto Garcia eskulan erakusketan



Alberto Garcia Arrasaten bere eskulanak erakusten

Urrun joan gabe, badaude Atxabaltan eskulanetan oso trebeak diren pertsonak, Alberto Garcia esaterako.

Arrasaten, Deba Garaiko jubilatuek egindako eskulanak erakusteko egon berri den erakusketan Albertok bere arte lan politik erakutsi zituen. Ez dira ez txantxetakoak gizon honek egindako lanak, argazkian ikusi besterik ez dago. Aurrerantzean ere horrela jarrai dezala.

Almeneko infantilak Gipuzkoako Kopan bigarren



Almeneko infantilak Gipuzkoako Kopako bigarren postua lortu ondoren



AITZIBER
NIÑO

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

O S K A R

HARATEGIA

Loramendi,1
☎ 79 71 69

Santiago bidea oinez

Batzuk ez dira udara begira egoten etxetik irtetzeko. Egia esan, Santiago bidea egiteko sasoirik onena ere ez da uda garaia, jende larregi ibiltzen da, eta albergeetan ez da tokirik egoten. Uda, sasoirik onena ez bada ere **Jose Benito Ayastuy**, **Jose Pagalday** eta **Eugenio Zubia**, denak ere

jubilatuta egon arren sasoi sasoi daudela erakutsi dute. Santiagoko bidea oinez egin berri dute. Esan behar da, **Valentin Mondragon**, arrasatearrak, kotxez lagundu ziela bide guztian zehar, eta bera arduratu zela koordinatzaile lanetaz: albergeak aurkitu, tesorero lanak egin, sukaldari, e.a.

Bidaian denetarik probatu behar izan zuten, edurra, euria, eguzkia eta izugarritzko haize hotz eta gogorra ere bai.

Paraje oso desberdinak pasatu zituzten: lautadak, menditsuak, lehorrak, hezeak, e.a.

Apirilaren 25ean urten zuten Orreagatik bedeinkazioa jaso ondoren eta maiatzaren 22an heldu ziren Santiagora, 27 egunetako bidaia egin ondoren. Egun bat bera ere ez zuten alperrik galdu.

Guztira 750 km inguru egin dituzte. Egun batetan bi etapa jarraian ere egin zituzten alberge batetan laguntzeko kotxea zutela eta lo egiten utzi ez zirelako. Honen ondorioz egun horretan 48 Km egitera iritsi ziren (pasiotxo bat...) Eguneko batzaz beste 27 Km egin dituzte.

Santiagora iritsi zirenean, "Erromesaren meza" entzun zuten eta Botafumeiroa ere ikusi zuten. Bueltan turismoa eginez etorri ziren kostaldetik. Ez zuten ez denborarik alperrik galdu.

Milaka abentura dituzte kontatzeko eta esperientzia polita izan dela ezin ukatu.



Jose Benito Ayastuy, Jose Pagalday, Eugenio Zubia eta Valentin Mondragon San Martín de Frómista eliza erromanikoaren aurrean (Palentzia)

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



IBARRA

ESTANKOAK

Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

AMETS TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta



KELER

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea



El León


Industrialdean
Tfnoa: 79 60 65

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51



MASAIK ZARAIA

MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13-1-A
Tfnoa: 79 71 55

Euskararako Erretoreordetzak bi beka eskaintzen ditu euskara ikasteko udan

Euskararako Erretoreordetzak bi beka eskaintzen ditu Zornotzako Euskaltegiarekin batera uda honetan euskara ikasi nahi duenarentzat. Erretoretzan bi aukeratuko dira, zozketa bidez. Irabazle biek hamabost eguneko barnetegia egin ahal izango dute Zornotzako euskaltegian, erabat doan, nahi duten mailan.

*EHU Campusa
(1995eko ekaina)*

Norbaitek beka hau lortzea gura izango balu deitu dezala Aretxagazetara 79 01 05 telefonora, edo eta gure bulegora azaldu. Bete-beharreko papela hemen daukagu.

Siadecok bertsosozaletasu naz eginiko azterketa "jakin" berrian

Siadeco Ikerketa Elkar-teak bertsosozaletasunaren inguruan egindako azteketaren laburpena da "Jakin" aldizkariak plazaratu berri duen 87. zenbakia zabaltzen duen "Gai nagusia". Euskal Herriko Bertsolari Elkar-tearen (EHBE) enkarguz ekin zion Siadecok azterketa honi, "Euskal Herriari bertsosozaletasunak gertaera sozio-kultural bezala duen garrantzia aztertzea" helburutzat harturik, lanaren aurkezpenean irakur daitekeenez.

*Egunkaria
(95-05-31)*

Oker ez banago, azkenengoz Arrasaten egon nintzenean UDAk hiru gol sartu zizkion Mondrari Iturripen. Eta, esan didatenez, orduetik hona asko aldatu omen du ondoko herriak. Kaleak txukun txukun jarri omen dituzte, parke bat baino gehiago ei dute eta izen xeble samarra duen futbol zelaia ere badutela uste dut.

Jaia Arrasaten




Felix Iriarte

Egunkaria-ko kazetaria

Nire begiekin ikusi dut hori guztia, domeka honetan. Hala ere ez dakit egun egokiena izango den, Euskal Herriko bazter guztietatik iritsiko diren Egunkarizaleek Arrasateko kale, enparantza eta parkeak beteko dituzte eta.

Baina ez zaitez kezkatu, zuretzat ere lekutxoren bat egingo baitugu beharrezko zaitugulako. Ez da dohaineko hitza, Egunkariak guztion laguntza behar du eta batez ere euskaldun guztiona. Administrazioetik lortu dugun laguntzak ez du ematen nahi dugun Egunkaria -egunero, kolorez eta orrialde gehiagorekin- egin ahal izateko. Horregatik ere garrantzitsua da zure partehartzea.

Euskararen basoan denok zuhaitz izan behar dugula dio herriko horma batek. Ez galdu sasi ez zarela erakusteko aukera. Bueltatxo bat eman Arrasatetik.... UDAk jokatuko ez badu ere.



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**T
X
i
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABAETA

Laborantza tresnak
FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko

Biona

Pentsuen Banatzailea

Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
☎ 79 48 77 ARRASATE

Ikasteko ez dago adinik

Egia da ikasteko adinik ez dagoena. Bestela galdetu HHI, Helduen Heziketa Iraunkorrea dabilzan emakumeei. Lotsak alde batera ustea eta ikasteko gogo eta ilusioa izatea da horrelako kurtso batetan hasteko falta egiten duen bakarra. Ikasteari aspaldi utzi zioten, hala ere berriz klaseetara joateari ekin diote. Gainera urruti joan gabe Atxabaltan bertan. Beraien helburua graduatu eskolarra ateratzea da. Honetarako garbi daukate egin beharreko ahalegina haundia izango dela, hala ere hortan saiatzen dira.

HHI siglak, Helduen Heziketa Iraunkorra esan nahi du. Idazten eta irakurtzen ez dakiten edo eta graduatua atera gura duten pertsonen zuzendutako kurtsoak dira.

Gaur egun Atxabaltan ere ematen dira HHI klaseak baina konkretuki graduatua ateratzekoak. Irakurtzen eta idazten ikastekoak Arrasaten ematen dira, Atxabaltan horretarako eskabiderik ez dagoelako.

HHIko prestakuntza, maila desberdinetan banatzen da:

1.-**Alfabetizazioa:** Irakurtzen eta idazten ikasteko. Arrasaten ematen da.

2.- **Hasierako irakurleak:** Maila honetan irakurtzen eta idazten dakitenei matematika eta beste arlo batzuetako oinarriak irakasten zaizkie.



Ikasleak gogoz joaten dira klaseetara

3.- **Zertifikatua:** Matematika, hizkuntza, natura eta gizartea lantzen da.

4.-**Postgraduatu:** Azken kurtsoan sartzeko preparatzen da.

5.- **Graduatu eskolarra:** Azken maila honetan graduatu eskolarra ateratzeko preparatzen da.

HHIren sorrera Atxabaltan

1993. urtean atxabaltan emakume talde baten eskaerei erantzun guran, Arrasateko HHI zentruarekin harremanetan jarri zen Udaletxeko enplegu teknikaria.

Ondoren, atxabaltan guztiei ikastaro hauen berri eman zitzaizkien eskutitz baten bitartez. Eta horrela graduatu eskolarra atera gura zuen talde bat sortu zen herrian.

Horrela Arrasateko HHIkin batera hezkuntza delegaziora eskaera luzatu zen eta irakasle bat izendatu zuten Aretxabaletarako.

Lehengo ikastaroa 94-95ekoa izan zen, esperientzia onaren ondo-

rioz 94-95. ikasturterako hirukoiztu egin ziren matrikulak.

95-96. ikasturterako maila desberdinetako bi talde osatu ziren. Hala ere, batzuk Arrasatera joan behar izan zuten.

Orain artean musika eskolan eman dira klaseak baina toki hau txiki geratu da. Klaseak goizez bakarrik eman daitezke, arratsaldean lokala okupatuta egoten da eta.

Ikasteko ilusioa

Atxabaltako HHI zentruko ikasleekin harremanetan jarri garenean irrifartsu eta pozik aurkitu ditugu guztiak.

Guztira 14 emakume dira Atxabaltako HHIlean ikasten ari direnak. Batzuk zerbait egiteagatik eta beste batzuk graduatua ateratzeko apuntatu ziren. Hauetatik erdiak zertifikatu mailan daude eta beste erdiak postgraduatu mailan.

Toni Hernandez atxabaltarrak esaterako 40 urte ditu eta postgraduatu mailan dagoen emakume

nagusiena da. Bere helburua graduatua ateratzea izango litzateke. Garai batetan ikasketa primarioak ikasi zituen baina hortxe bukatu ziren Toniren ikasketak. Orain ordea, graduatua ateratzeko aukera etorri zaionean ez du galdu eta pozik joaten da klaseetara.

"Ikasteko adinik ez dagoela uste dut, inoiz ez da berandu, gainera klaseetan oso giro ona dago eta gure arteko erlazioa polita da".

Toni pozik dago kurtsoaz eta graduatua atera artean jarraitzeko asmoa dauka.

Saioa Ezkibel, 20 urtetako atxabaltarra, postgraduatu mailan dagoen neskarik gazteena da. Saioak 8. mailararte ikasi zuen. Hala ere momentu hartan ez zuen graduatua atera eta bere gurasoek animatuta etorri zen kurtso haue-tara.

Saioak honela kontatzen digu bere esperientzia: *"Hemen hasi aurretik dena beltza ikusten nuen. Lagunen artean maila txikiagoa nuela ikusten nuen. Orain, esperantza berreskuratuta dut, hobeto sentitzen naiz. Honez gain laguntasun handia somatu dut klasean eta oso ondo konpontzen gara elkarrekin. Esan beharra daukat andereinoek oso pazientzia handia daukatela gurekin."*

Toni eta Saioaz gain, zertifikatu mailan dagoen **Ana Lozanorekin** ere izan gara. Anak ere ikasketa primarioak ditu eta graduatua ateratzea da bere helburua. Momentuz oso gustora dago klasean eta bukatzean lanen bat topatzea gustatuko litzaioke. Anak esan digunez kurtso hauek norberaren autoestima indartzeko ere balio dute.

Ikastaroan dauden emakumeetatik inor ez da ikastaroan apuntatzeaz damutzen. Lerro haue-tatik beraien egoeran dauden gizon emakumeei lotsa alde batera utzi eta ikastaro hauetara etortzeko animatzen dituzte. *"Ikasteko inoiz ez da berandu"*.

Maite Olazabal ordiziarrak eta Miren Bengoa arrasatearrak Atxabaltan diardute helduen heziketako klaseak ematen. Maitek magisteritza ikasi zuen eta Mirenek berriz magisteritza eta ingeles filologia ikasi zituen.

Donostiako delegazio-tik deituta hasi ziren klase hauek ematen.



Maite eta Miren Helduen Heziketa Iraunkorreko irakasleak dira

"Ikasleak oso motibatuta ikusten ditugu eta horrek gu ere motibatuta egotera eramaten gaitu"

• Ze helburu ditu Helduen Heziketa Iraunkorrek?

Gure kasuan ikasleak graduatu eskolarra ateratzeko preparatzea da helburua. Honez gain lehenengo lana taldekoek elkar ezagutzea da, elkarrenganako errespetua sortu eta giro egokia sortzea.

• Ze iritsi duzue kurtso hauen inguruan?

Guk oso ikuspegi baikorra daukagu ikastaro hauen inguruan. Oinarrizko gauzak ikasteaz gain, autoestima eta beste aspektu batzuk ere lantzen dira. Klaseek Terapia gisa ere balio dutela esan daiteke, norberaren autoestima ere indartzen da eta. Ikasleek oso ondo pasatzen dute.

• Ze hizkuntzatan ematen dira klaseak?

Erdaraz ematen dira, eskaera horrelakoa izan delako.

• Zergatik ez da alfabetatze maila ematen?

Eskaeraren arabera sortu ziren mailak. Hasi aurretik izen eman zuten ikasleei frogatzen egin zitzaizkien maila zein zen jakiteko eta bi maila horietan banatu ziren

ikasleak.

• Zenbat lagun dabilta momentu honetan ikastaroan?

Atxabaltan bi maila lantzen dira, zertifikatua eta graduatua. Bi maila hauetan bakoitzean 7 emakume daude.

• Zenbat ordu ematen dituzue egunero?

Bi, goizeko 9etatik 11etara.

• Jendea gustora etortzen da?

Bai, oso gustora.

• Nola banatzen da ikasturtea?

Kurtsoak 8 hilabete dauzka eta lauhilabete bakoitzeko 15 egunetan kultur ekintzak egiten ditugu, eskulanak, sukaldaritza ikastaroa, e.a.

• Ze adinetako jendea dago?

Adin oso desberdinetako jendea dago. Zaharrenak 60 urte dauka eta gazteenak berriz 20 urte.

• Denak atxabaltarrak dira?

Gehienak bai, hiru bakarrik daude Arrasatekoak direnak beste guztiak atxabaltarrak dira.

• Ondo konpontzen zarete ikasleekin?

Bai, oso ondo konpontzen gara elkarrekin. Lagun giro polita sortu da eta gure arteko harremanak estuak dira. Motibatuta ikusten ditugu ikasleak eta horrek gu ere asko motibatzen gaitu. Zerbait ikasi dutela konturatzen direnean asko pozten dira ikasleak.

Pedro Guenetxea Memoriala

Bigarren urteko kadeteek maiatzaren 28an Atxabaltan antolatutako Pedro Guenetxea Memorialean korritu zuten, 119 txirrindularik guztira. Hauetatik 76k bukatu zuten karrera. Dorleta Txirrindulari Eskolako J.M.A. taldeko seik: **Oier, Mikel, Gorka, Kortabarria, Uralde** eta **Lete**.

Lehenengo hirurak ondorengoak izan ziren: **Beñat Garaialde** beasaindarra (Iberdrola); **Andoni Aramaga** azpeitiarra (Aluminios Azpeitia) eta **Lizeaga** oiartzuarra.



Karrerako hiru irabazleak

94-95 futbol liga bukatu da

U.D.A.ko Preferenteek eta Lehenengo Erregionalekoek bukatu dute aurtengo liga. Preferenteak 8. postuan gelditu dira klasifikazio generalean eta Lehenengo Erregionalekoak barrez 13. postuan.

Joan den zapatuan urtero moduan afaria egin zuten esandako taldeek eta nesken taldeak, Taberna Berri jatetxean.

Afarian, aurtengo ligan orekatuen mantendu den futbolariari trofeoa oparitu zitzaion eta gehien nabarmendu denari berriz baloi bat. Hona hemen zeintzuk izan ziren sarituak:

Preferente mailan:

Ligako orekatuena: **Tito Etxeandia**

Gehien nabarmendu dena: **Kerman Sagasta**.

Nesken taldean:

Ligako orekatuena: **Amaia Garcia**.

Gehien nabarmendu dena: **Nerea Etxeandia**.

Lehenengo erregionalean:

Ligako orekatuena: **Alex Goitia**.

Gehien nabarmendu dena: **Asier Ingidua**

Afari bukaeran **Goio Arrietari** esker berezia eman zitzaion urtean zehar egindako lanagatik.

Dorleta Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAIDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

Deba arroko XLVIII pelota txapelketa finala

- ❑ Eskoriatzako K.E.koa den Unai Iñurrategiri eman zitzaion pelotari onenaren saria
- ❑ Eskoriatzarrak nagusitu zitzaizkien Errasti anaiei

Lagun mordoia bildu zen pasatu den domekan Iturrigorri frontoian Deba arroko pelota txapelketa finala ikusteko.

Parejaka hiru partidu jokatu ziren, infantil, jubenil eta senior mailakoak.

Infantil mailan, **Etxabe-Bengoetxea** eibartarrek 18-22 galdu zuten Elgetako **Ubera II-Sendinoren** aurka.

Jubenil mailan, **Osa-Gutierrez** bergararrek, Plazentziko **Lascurain-Garciaren** aurka.

Senior mailan, **Errasti anaiek, Dominguez-Iñurrategi** eskoriatzarren kontra 20-22 galdu zuten.

Azken partiduan joko polita ikusteko aukera izan genuen. Bi bikoteek lehia gogorra izan zuten bukaera arte, azkenean eskoriatzarrak nagusitu ziren arren.

Sariak banatzerako orduan **Errandonea** eta **Elkoro** pelotariak hemen izan genituen. Haez gain, Aitor Antxia alkatea, Manolo Zubillaga, Bixente Etxeandia, eta Federazioko arduraduna ere bertan egon ziren sariak banatzen.

Egunaz ondo bukatzeko guztiek bazkaria izan zuten Uratz-Alde Elkartean eta guztira 58 lagun bildu ziren.



Senior mailan Iñurrategi eta Dominguez izan ziren txapelkunak

LEHENAGOKO TXAPELDUNAK

Historiara jotzen badugu, Deba arroko pelota txapelketa, 1948. urtean jokatu zen lehen aldiz Atxabaltan. Gainera senior mailako **Elortondo-Ezpeleta** atxabaltarrak bigarren gelditu ziren. Lehenak Arrasateko Garitano eta Uribarren izan ziren. Orduetik urtero urtero jokatu da pelota txapelketa hau. Hasiera batetan Atxabaltan bakarrik jokatzen bazen ere gero beste herri batzutan ere jokatzen hasi zen. Jubeniletan 1980. urtean jokatu zen lehen aldiz eta infantiletan 1973. urtean. Azken honetan, atxabaltarrak izan genituen txapelkun, **Arenaza-Zabala** bikotea. Garate-Nafarrate eskoriatzarrak bigarren gelditu ziren. Ondoren argiago ikus dezazuen, txapelketa honetan historian zehar garaile atera diren atxabaltarrak daude:

SENIOR MAILAN

1948. urtean: • Txapelkun: Arrasateko Garitano-Uribarren
• Bigarren: Atxabaltako Elortondo-Ezpeleta

1951. urtean: • Txapelkun: Atxabaltako G. Etxabe-Ezpeleta
• Bigarren: Eibarko Arrieta-Olariaga


1967. urtean: • Txapelkun: Bergarako Garitano-Etxaniz
• Bigarren: Atxabaltako G. Etxabe-Errasti

JUBENIL MAILAN

1970. urtean: • Txapelkun: Bergarako Arazconaga-Moñux
• Bigarren: Atxabaltako Esnaola-Castillo

INFANTIL MAILAN


1973. urtean: • Txapelkun: Aretxabaletako Arenaza-Zabala
• Bigarren: Eskoriatzako Garate-Nafarrate



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



EGUZKIGRAF

Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

Museoaren inguruan

Azken hilabete honetan, Santa Rita Ikastetxeko haurrok bi museo desberdin ezagutzeko aukera izan dugu; bata "Eskoriatzako Museoa" eta bestea "Zumalakarregiren museo itinerantea".

Eskoriatzako museoan goiz bat pasa genuen eta bertan ekintza ugari burutu genituen gure aintzindarien ohitura, bizitza eta tresneriak ezagutzuz.



Hemen aintzinean haitzuloetan egiten zituzten marrazkiak egiten ari gara, ikatza eta animalia koipea erabiliz. Aurpegiak ere margotu genituen.



Aintzina aintzina elkarrekin komunikatzeko erabiltzen zuten txalaparta. Guk ere txalaparta jo eta irrintziak egiten ikasi genuen

Beste museoa barrez, gure ikastetxera hurbildu da eta bertan aste oso batez eduki ditugu baulak ekintza desberdinak burutzeko. Zumalakarregiren garaiko gizartea, jantziak eta abar ezagutu ditugu.



Argarki honetan XIX. mendeko jendea bezala jantziak gaude.

Gaur egunetik apur bat urrunduz, aintzinako Euskal Herriko gizarte motak eta bertako jendearen ohiturak ezagutzea oso interesgarria izan da.

Hortz klinika

Imanol Arrazola
Otxoa

Mediku-Odontologoa
Col. 405

Otalora 18 - 1.º D
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tf: 79 93 55

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

"HERRASTI"
AKEITA



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

Artano
Taberna

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

DON VIDEO

PELIKULARIK
BERRIENAK

Lezamako Merkatal
Zentrua
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATE

Elektrogailuak
Elektra-instalaketak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

MARI-MERKE

.....
Ipuinak eta jostailuak

.....
Lezama Merkatal Zentrua
ARETXABALETA



AZKENA
TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



Aurreko zenbakian, baserri inguruko eskolak aipatzen zirenez, oraingoan kalekoei dagokie txanda. 1933. urte inguruko kurtsu bukaeran ateratako argazki honek, orduko neska multzoa dakargu begietara. Zer esanik ez, neskak eta mutilak bananduta egiten zituzten euren ikasketak. Normalean, Matematikak, Espainiar Hizkuntza eta Geografia ikasten ziren. Hamalau urterarte egoten ziren eskolan, eta jolas ordutan Elabi-elabika, edo tortoliska jolasten zuten. Opor aurretik (garaian garaiko) ateratako argazkian eta behetik hasita. (ezkerretik eskumara):

Lehenengo iladan: Felisa Guridi, M. Cristina Zuazabeitia, P. Horcajada, C. Leanizbarrutia, Pilar Gabilondo, Maritxu Etxandia, Maritxu Elorza.

2. iladan: Teresa Galdos, M. Josefa Ugalde, Espe Etxebarria, Rosario Arkauz, Nati Peña, Pilar Azkarretazabal, Arantza Galdos.

3. iladan: Blanca Agirre, Francisca Castro, Isidora Garziaetxabe, Maritxu Ugalde, Francisca Zaitegi, Alejandra Agirre, Asun Antxia, Basilisa Zuazua.

4. iladan: Felisa Gonzalez, Carmen Martinez, Espe Larrinaga, Carmen Aspe, Pilar Zubillaga, Felicitas Urzelai, Maritxu Leanizbarrutia, Pakita Azkarretazabal, Aurora Valle.

5. iladan: Carmen Leanizbarrutia, Tomasa Garciaetxabe, M. Rosa Ondarra, Doña Francisca (maistria), Guadalupe Ondarra, M. Cristina Peña, Milagros Etxebarria.

6. iladan: Crescen Lizarralde, Jesusa Etxebarria, Tomasa Atxa, Juli Unamuno, Maritere Ariño, Duni Zuazabeitia, Fermina Gabilondo.

*Iñaki Urreta Leturiondo
Aitor Antxia Leturia*

Bukatu eta Bukavu



J.J. Aretxaga

Beatotik santura koska haundia dago? Ez dakit. Inoiz ez zait burutik pasatu gure herrian santu edo beatorik egon zitekeenik. Ba laster izango dugu beato izendatutako atxabatar bat. **Carlos Eraña**, Azatzakoa, beato izendatuko dute Erroman urriaren 1ean. Marianista izan zen, irakaslea, eta 1936an fusilatu egin zuten. Beato bat Azatzen!

Azata inguruan ibiltzen den beste bati pasatu zaio edarra. **Jesus Kortabarria**, badakizue, HBko zinegotzi barria da. Lehen be zinegotzi izandakoa. Ba hauteskunde egunean suga batek pikatu zion, sugedorriak, lanean zebilela. Zentrora eroan zuten eta berak gura izan arren urteten utzi ez ziotenez, botatu barik geratu zen. HBkoak penaz zeuden: 1.000 bitora

ailegetako bi boto falta, eta bat Kortarena.

Alkatea epaitu digute. **Aitor Antxiak** ederto bukatu du bere agintaldia, Bergarako epaitegian. Baina trankil. Aretxabaletako Udala intsumiso deklaratu delako epaitu zuten Zorionak emuteko modukoa da hori.

Hirugarren Mundu Taldea gogor dabil. Badakizue Unai Proiektua bukatu zela, 4 urtetan Indiako Adivasi etniakoekin 16 miloiko lanak eginez. Hori bukatura beste proiektu batekin datoz orain: **Bukavu Proiektua**. Hau Afrikan izango da, Zairen dauden Ruandako errefuxiatuekin, eskolak egiteko. Hau aurkezteko bertso eta dantza jaialdia izango da zapatuan frontoian.

Sebastian Uribetxebarria, Colombian dagoen misiolari atxabaltarra (Urkulu baserrikoa) be hemen daukagu bisitan.

Andoni Zubizarreta atezain atxabaltarrari omenaldia egin zioten 100 partidu jokatu zituelako Euskal Herriko selekzioan. A, ez, barkatu, Españako selekzioan. Horregatik egin zioten Sevillan omenaldia ekainaren 7an. **Bixente Etxeandia**, UDAko lehendakaria joan zen Sevillara, Aretxabaletako ordezkari.

ARETXAZOKA

• Betaurreak galdu nituen. Funda berdea daukate. Telefonoa: 79 86 72

LANA

• REMeko klase partikularrak emango dituen norbait behar da. Deitu 3rak aldera, 79 48 38 telefonora.

• Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko esperientziadun neska prest dago. Deitu, 79 96 10 telefonora. (Maritxu)

ETXEBIZITZA

• Pisu bat salgai dago Lausita auzoan, 2. zenbakia. Telefonoa ondorengo da: 79 85 68

• Garaje bat alokatzen da, Mitarte 11n. Interesatuak deitu 79 47 62 telefonora.

• Neska batek pisu bat alokatu gura du Atxabaltan. Bere telefonoa ondorengo da: 79 49 70

• 82 m²-ko lokala salgai dago. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi kalean dago. Telefonoa: 79 01 17

• Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden. Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu 1etatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.


SALMENTA

• Sukaldeko altzariak (ekonomika eta guzti) eta jangelako altzariak salgai. Egoera onean eta merke. 79 01 66 (eguerdian eta gauetz, Arantzazu)

• Vespa beltza salgai dago. SS-W. Tfnoa: 79 46 98

Alonso Asensio

"Bezeroekin tratatzea da gehien gustatzen zaidana"



Catalunian jaioa bada ere txiki txikitatik bizi da Atxabaltan Alonso. 40 urte inguru daramatza "Asensio" dendan lanean, ez da gutxi. Dendari lana oso gustoko duela kontatu digu eta bereziki bezeroekin tratatzea.

- Mutilek alkondarak ala frakak erosten dituzte gehiago?

Alkondarak.

- Emakumeendako frakak ala gonak gustetan zaizkizu gehiago?

Gonak.

- Zer da zure lanetik gehien gustetan zaizuna?

Dena, baina bereziki bezeroekin harremanetan egotea.

- Orain ere egoten dira beherapenetan iladak Asensio dendan?

Bai, oso prezio onetan egoten dira erropak eta gu oso pozik egoten gara.

- Gizonak etortzen dira bakarrik erostera?

Bai, baina oso gutxitan.

- Zer da pertsona batetan gehien baloratzen duzuna?

Zintzotasuna eta formaltasuna.

- Zeintzuk dira zure afizioak?

Mendian ibiltzea, periodikua irakurtzea eta arrantzan egitea.

- Nora joaten zara arrantzan egitera?

Ullibarrira.

- Harrapatu duzun arrainik haundiena?

Sei kilotako amurraina.

- Zein toki da Atxabaltatik gehien gustetan zaizuna?

Toki politik asko daude baina bat esateko Urkulu ingurua.

- Zein pertsona ikusiko zenuke oraintxe gustora?

Aita Santua.

- Lotsatia zara?

Ez.

- Zerk ematen dizu amorrua?

Gezurra esateak.

- Nora bidaiatzea gustatuko litzaizuke?

Munduari buelta ematea.

- Erabiltzen duzun esaera zahar bat...

Hamaika holako ikusteko jaiok gara.

- Eta bukatzeko Alonso, hasarraketan zarenean zer esateko ohitura duzu?

Zerbait esan aurretik ixilik geratzen naiz.



Alfredo Meabe dugu aurreko alean saritu suertatu zena.

On egin!!!

Afariekin bukatu dugu. Baina orain beste opari goxo batekin gatoz. Oraingo honetan, beheko galdera ondo erantzun eta saritu suertatzen denak, **Muruamendiaratz** gozotegiak oparitutako **tarta goxo** bat irabaziko du.

Ea ba, nor izaten den hurrengo saritua.

Erantzun guztiek **ARETXAGAZETAREN** bulegoan egon beharko dute datorren eguna baino lehen. Azkar ibili eta ez ahaztu idaztea.

Gozotegia

Izozkitegia



Durana, 2 - Tfnoa: 790788

ARETXABAETA

Zein da HHI-ren esangura?

a.- Haundien Heziketa Iraunkorra

b.- Helduen Heziketa Iraunkorra

d.- Helduen Heziketa Informatikoa

***Aurreko aleko erantzuna "1498. urtean" zen.**



Erantzuna:

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Pentekosteak

Ekainak 10

FUTBOLIN LEHIAKETA

Seminarioko patioan izango da LAM 3-k antolatuta.

Ekainaren 15etik 25era

ERAKUSKETA

Xamatz dantza taldeak antolatuta argazki eta jantzien erakusketa egongo da ikusgai Kultura Etxean.

OÑATI



Corpus jaiak ekainaren 17 eta 18an.

Ekainak 9

KONTZERTUA

Kamara kontzertua musika eskolako irakasleak eskainita. Mari Jesus Ugalde (sopranoa), Mari Jose Juaristi (Klarineta), Elisabet Mendiaraz (pianoa), Jesus Mari Arriaran (oboea), Angel Agiriano (bonbardino). Santa Ana Antzokian izango da arratsaldeko 7,30etan.

Ekainak 11 domeka

DANTZA SAIOA

KALYNA dantza folklore taldearen saioa (Ukrania). Arratsaldeko 7,30etan Santa Ana Antzokian.

Ekainak 15 eta 16

KAFE TEATROA

Ekainaren 15ean 6etan eta ekainaren 16an gaueko 10etan, **Lourvier's taldeak** eskainitako **Lourvier's salom**.


ESKORIATZA



Ekainak 11

DANTZARI EGUNA

ARRASATE



Ekainak 10

INSUMISO EGUNA

Ekainak 11 domeka

EUSKALDUNON EGUNKARIA FESTA

Egunean zehar ekintza mordo egongo dira. **Mikel Markez, Tolosako Dultzaina, Arroztaitz dantza taldea, bertsolariak, Estixu Arozena, Jexux Mari, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Jon Sarasua, Imanol Lazkano, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Oskorri, Exkixu, E.H. Sukarra, Kaxiano, Bittor Aiape, Gozategi trikitixa taldea, Lore Gazteak dantza taldea, Arkaitz taldea, Sebastopoleko titiriteroak** eta beste ikuskizun mordo bat ere bai.

Ekainak 12 astelehena

HITZALDIA

"Ba al zenekien haur txiki txikiak irakurtzeko gauza direla?" hitzaldia egongo da Arrasateko Monterron Kultur Etxean **Begoña Garmendia** Haurren psikiatrak emanda. Arratsaldeko 6etan izango da.

Ekainak 15 eguena

ANTZEZLANA

Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian **MASKARADA** antzerki taldearen "Ernesto Izatearen garrantzia" antzezlan egongo da ikusgai.

Ekainak 18 domeka

HAUR DANTZARIEN EGUNA

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozotegia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Militaria 1 - Tfno. 77 00 81

*Aretxabaleta
Obrador Propio*

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

ARETXABALETA



Ekainak 9 eguakotxa

HITZALDIA

Tril emakume taldeak antolatuta **Astrologiari** buruzko hitzaldia izango da Loramendi Kultur Elkartearen. Arratsaldeko 7etan ekingo da eta Fermin Alziguren Lesakarrak emango du.

Ekainak 10 zapatua

JAIALDIA

"ZUZEN" Hirugarren Mundu Elkarteak antolatutako jaialdia izango da Iturri-gorri frontoian. Gaueko 10etan hasita, **Imanol Lazkano**, **Iñaki Murua**, **Xabier Euskitze**, eta **Jon Sarasua** bertsolariak izango dira. Hauxez gain **Laja trikifilaria** eta **Bergarako dantzariak** egongo dira dantza suelta eskaintzen.

Ekainak 11 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Kanpazar-Elorrio-Berriz-Trabakua-Markina-Ondarroa-Deba-Aretxabaleta. Guztira 96 Km. egingo dituzte eta goizeko 8,30etan irtengo dira Zaraia kaletik.

MENDI IRTEERA

Zaraia M.T., **GANBOA**ra egingo du mendi irteera.

Ekainak 18, domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Urbina-Gamarra-Murguia-Oroko Santutegia-Zarate-Gopegil-Legutiano-Landa-Aretxabaleta.

Ekainak 21 asteazkena

TXONTXONGILO EMANALDIA

Ekainaren 21ean, arratsaldeko 7etan, **TXONTXONGILO** emanaldia izango da liburutegian, **ANTZEKIZUNA** taldearen eskutik. "Pinotxo" obra eskainiko dute.

Udaleku irekiak

Aurten ere **Ortzadar Atsedeen taldeak Udaleku Irekiak** antolatuko ditu uztailaren 3tik 21era bitartean (3 aste). Udaleku hauetan 3 urtetatik 14 urte bitartekoek parte hartu dezakete. Ikastetxeetan propaganda banatuko da izena emateko fitxarekin. Apuntatu gura duenak fitxa honekin eta propagandan eskatzen diren bete-beharrekin Ortzadarreko lokalera joan behar du, arratsaldeko 5etatik 8etara bitartean edo eta ondorengo telefonora deitu: 79 01 84
Izen emateko epea **ekainaren 12tik 23ra** bitartekoa da.

Oraindik ere, Arrasaten ekainaren 11n izango den **Egunkaria Festan** diru trukea egiteko norbait prest egongo balitz, Loramendi Kultur Elkartera jo dezala apuntatzera edo eta 77 09 70 telefonora deitu dezala.

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkartea 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkartea 79 33 99
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
79 34 28
ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J.

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

40
AÑOS-URTE

HACIENDO
LAGUNAK

AMIGOS
EGITEN



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores,
dotoretasunez apaintzen
duten kalitatezko
altzariak, Garibai, 9an.



**Amuebladora
Mondragonesa**

centro hogar
prezio-kalitate onean
denentzat altzariak gure
pabilioi izugarrian,
Zigarrola, 1ean.



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. sukaldeak
sukalde altzariak XEYren
garantiaz, Zerkaosteta, 3an.

Irabaz ezazu mountain-bike
bat bakarrik gu
bisitatzeagatik, EDO
HOBETO, ERAMAN EZAZU
DOHAINIK zure altzariakin.

